

Haurren minbiziari buruzko ikerketa proiektuetarako 2016ko laguntzak – aecc Fundazioa

Helburua:

Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartearen (aurrerantzean **aecc**) Zientzia Fundazioak haurren minbiziari buruzko ikerketa proiektuetarako laguntzen deialdi bat argitaratu du.

Hautagaiek bete beharreko baldintzak:

Ikertzaile nagusiak betebeharrak hauek izango ditu:

- Doktore titulua edo Osasun Prestakuntza Espezializatuko titulua izan behar du.
- Zientzia ikerkuntzan diharduen Espainiako erakunde batean lan egin behar du lehentasunez.

OHAR GARRANTZITSUA: ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzen duen aldi osoan egiaztatu behar du unibertsitatearekin duen funtzionario, estatutu edo lan lotura.

Ikertaldeko kideek eskaria aurkeztean baino ez dute egiaztatu behar lotura hori.

Diru laguntza jasotzen ari direnean UPV/EHUrekin duten lotura bukatzen zaien ikertaldeko kideek ezingo dute gasturik inputatu, egoera hori aldatu ezean. Ikertzaile nagusiak eman behar du laguntzaren aldiaren sortzen diren bajen berri, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan.

Laguntzaren zenbatekoa:

Aecc Fundazioak 150.000 euro gordin emango ditu proiektua hiru urtean gauzatzeko (50.000 euro gordin urte bakoitzean). Laguntzok urtero berri ahal izango dira.

Eskariak aurkezteko epea:

2016ko urtarrilaren 11ko 15:00etara arte (penintsulako ordua).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

[Eredu normalizatuen arabera](#)

- Memoria zientifikoa eta ekonomikoa
- Curriculum vitae

- Ikastegiaren adostasuna
- NANaren kopia

**UPV/EHUko IKERKETAKO ERREKTOREORDEAREN SINADURA LORTZEKO
PROZEDURA:**

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2015eko abenduaren 18a	Ikertzaile nagusia	I. eranskinaren berrikuspen agiria eta "Erantzukizun adierazpena" eskuz idatzitako sinadura originalekin paper formatuan Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Deialdiak atalera.
2015eko abenduaren 23a. Egun horretatik aurrera, ez da bermatuko legezko ordezkariaren bermea behar duen dokumentazioa garaiz igorriko denik.	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Errektoreordeak sinaturiko "Ikastegiaren adostasuna" formularioa igorriko zaio ikertzaile nagusiari, <i>aecc</i> aplikaziora igotzeko.
OHARRA: UPV/EHUtik kanpoko kolaboratzaileek beren jatorriko ikastegiaren baimena behar dute.		

Eskaria egiteko prozedura:

Deialdian parte hartzeko eskaria egiteko, *aecc* Fundazioaren **inprimakiak** erabili behar dira. Eskaria aurkezteko, ikertzaileak edo proiektuen kudeatzaileak **www.aecc.es webgunean erregistratu behar du.**

Kontsultatu eskariak aurkezteko [gidaliburua](#).

****Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaria, garaiz eta behar bezala, Fundazioaren aplikazioan. Halaber, hark bidaliko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, pdf formatuan, emandako dokumentazio guztiaren kopia; UPV/EHUtik kanpoko kolaboratzaileen kasuan, jatorriko ikastegiaren baimenaren dokumentazio originala ere aurkeztu beharko da.**

Informazio gehiago:

Fundazioarekin harremanetan jartzeko pertsona: Gloria Vizán (telefono zenbakia: 91 310 8225)

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko pertsonak:

Tel.: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.es